

EGK-k Indarkeria LGTBI+fobikoa salatzen du

Indarkeria LGTBI+fobikoak egun ere gure gizartearen errealitate bat izaten dirau. Gainera, Indarkeria hau edozein adin edota motatako pertsonak bizi dezakete. Tamalez, baita gazteok ere.

Beti ez dira gazteak erasotzaile eta biktimak, baina bai egia dela egun oraindik ere badaudela indarkeria egoerei aurre egin behar dieten LGTBI+ kolektiboko gazteak. Baita gazteak erasotzaileen artean ere. Hau dela eta, berebiziko garrantzia du Euskadin oraindik ere ematen den egoeraz dakigun urria ezagutzera ematea.

Izan ere, Indarkeria LGTBI+fobikoaz hitz egiterakoan, hau da dagoen lehen zailtasuna: informazio faltarena. Egun oraindik Euskadin ez dago LGTBI+ kolektiboaren behatoki propiorik eta honek ezinbestean errealitatea ezagutzeko ezintasuna erakartzen du.

Indarkeria LGTBI+fobikoa zifratzen

Esan bezala, historikoki hain larria izan da egoera eta trataera egun ez ditugula eskuragarri ikerketa sakonak ezta datu landu zein luzerakoak. Are gehiago, eskuragarri daukagun informazio bakarra da Estatu mailako **StopLGTBFobia Behatokiak** egiten duen gorroto delituen gaineko informazioa da. Non ikus daitekeen joan zen urtean, **2015ean, Sexu identitate edota orientazioagatik 27** eraso eman zirela Euskadin. Gainera, Euskadiko hiru probintziak mota honetako delitu salaketa gehien jasotzen dituzten Espainiako lehen zazpi probintzien artean aurkitzen dira.

Ordea, ezin dezakegu ez sexua adinaren inguruko datu gehiagorik lortu; ezta ere bide judiziala aktibatzen ez duten beste gertakarien gaineko informaziorik.

Hau gutxi balitz, Indarkeria mota honen dimentsio estrukturalak eragiten du guztiok, alegia, gazteri osoak, honen indarra eta eragina pairatzea (arrazoi LGTBI+fobikoengatik erasoak jasatea kolektibokoa ez izanda ere, gure jarrera eta portaerengan eragitea...).

EGKren hobekuntzarako proposamenak

Egoera honen aurrean, EGK-k lehendabizi eskatzen du kasu bakoitzaren aurrean justizia egin dadila, beti ere ahalik eta erarik azkar, eraginkor eta Indarkeria jasan dutenekiko ahalik eta begirunetsuenean.

Hala ere, indarkeriari aurre egitea ez da soilik kasu bakoitzari erantzun juridikoa ematea. Eragile guztiak indarkeriarekin harremana duten prebentzio mota guztietan inplikatzeko eta egungo esfortzua hobetzea ere bada honi aurre egitea. Hau dela eta, gero eta pauso gehiago emate aldera, hauek dira EGKren proposamenak:

Alde batetik, Administrazioari:

- **Harrera juridikoari** dagokionez:
 - **Tratu, neurrien ezarpen eta kontrolaren hobekuntza;** hauek biktimaren ongizate integral bat bidera dezaten.
 - **Legediaren aldaketa:** Estatu mailan 1/2015 Legearen 22.4 artikulua da delitu hauen esparrua garatzen duena eta Euskadi mailan 14/2012 Legea aipa genezake.
Ordea, zeharkakotasuna LGTBI+ kolektiboa erasotzen dutenei zigortzeko eraginkortasunarekin bat doala uste dugu. Hau dela eta, beharrezkotzat jotzen da Indarkeria sistematiko hau bere testuingurutik aztertzea eta tratatua izatea baimenduko duen lege bat.
- **Prebentzioari** dagokionez:
 - **Hezkuntzatik hasi.** Kasu honetan begirada integralagoa ezinbestekoa da.
 - Alde batetik, hezkuntza sozializazio prozesu bezala ulertu beharra baitago.
 - Bestetik, beharrezkoa den hezkuntzari dagokionez. Aniztasuna, hezkidetzak, heziketa sexuala, adimen emozionala,... eskutik eta era sakon zein zeharkako baten landu beharrekoak dira.
 - Gainera, gizarte eragile guztiak barne hartu behar ditu.
 - Sentsibilizazio kanpainak eta bestelako inpaktu ekintzak burutzea.
 - **Ikerketak eta datuak.** Prebentzio neurrien diseinuaren hobekuntzari begira ikerketak eta datu anitz zein luzetarakoak beharrezkoak dira.
 - **LGTBI+ behatokia sortu.** Egun ez daukagu aukerarik ez erasoan ez aniztasunaren gainean informatzeko (Behatoki integralik, Behatoki bateren sailik,...) eta hau ezinbestekoa zaigu. Ezinbestekoa zaigu kolektiboak bizi dituen bereizketa mota guztiak ezagutzeko eta bere eskubideen alde egiteko Behatoki bat sortzea.
- **Arazoaren trataerari** dagokionez:
 - Bereizketa faktore anitzen intersekzioaz eta honen inpaktuaz arduratzea ezinbestekoa da.

Bestetik, gazteriari:

- **Tolerantzia eta inplikazioa**
 - Erasoan aurrekari diren jarrera LGTBI+fobikoei freno botatzea eta hauen larritasuna ulertu: gorrotoak mugituak dira.
 - Erasoan testigu izatean, ez isildu, ekin eta luzatu laguntza biktimari.

- Biktima bazara, zure bizitza berreraiki dezakezu eta horretarako, izan ezazu argi, zurekin gaude.
- **Indarkeria LGTBI+fobikoa eta honen sustrai diren beste indarkeria eta jarreraren aurka ekin.**
 - Norbere burua eta ingurugiroa kritikoki aztertu eta eraldatu aniztasunaren ideiarene alde.
 - Indarkeria LGTBI+fobiko edota honen ideologiarekin harremana izan dezaketen Indarkeriei aurre egin (Indarkeria Matxista, maitasun erromantikoan oinarritutako bikoteen arteko indarkeria,...).
- **Aniztasunarekiko konpromisoa eta gizarte eraldaketa.** Kontuan izan Indarkeriaren sustrai estrukturala eta honen gainean ekin. Aniztasunean bizitzea eskubide berdintasuna izanik guztion artean lortuko dugun zerbait da eta!

Indarkeria LGTBI+fobikoa aurkeztu zaigun era latz honetan ideologia patriarkala eta cisheterosexistaren alderik ikusgarriena da; bitartean, iceberg-a izango balitz bezala, milaka eguneroko jarrera eta portaera daudelarik ere ezkutuan. Hauek ez dute soilik LGTBI+ kolektiboaren eskubideen aurka egiten, baita norberak bere baitan duen aniztasun eta bizipen konkretuen garapenaren eskubideari ere.

Pentsamolde eta ekite hauek ez dute baimentzen aniztasunerako eskubidea ziurtatua egotean eta elkarbizitzan eta elkar aberastean oinarritzen den gizarte eta gazteri bat eraikitzea.

Hau dela eta, gertatutakoaren salaketa honen bitartez Gazteriaren Kontseiluak gazterian ere ematen den LGTBI+fobia salatu eta aniztasuna ez soilik onartua, baizik eta bermatua eta sustatua den gazteriaren eraikuntzan bere konpromisoa berretsi du.